altza

Ana Larekiren margoak

Ana Lareki gazteak pintura erakusketa berri bat hasiko du Altzan datorren astetik aurrera.

Urtarrilaren 10etik 23ra izango dugu ikusgai Casares Kultur Etxean azken urte hauetan pintore honek egindako lan bilduma.

Ana, Donostiako Antigua auzoan jaiotako gaztea dugu eta Alfredo Bikondoa maisuaren eskutik 10 urterekin hasi zen pintura munduan. Kandinsky, Klee eta Miró-k eragin zuzena dute bere lan artistikoan.

Ana Larekik erakusketa aurkezterakoan, Picassoren esaldi bat azpimarratu nahi izan du «*artea egiara gerturatzen gaituen gezurra da*». Bere lan ibilbidea honakoa da: Donostiako Sauce erakustaretoan 1992. urtean erakusketa bat egin zuen, 1993. urtean Iruneko Amaia aretoan kartel erakusketan parte hartu zuen eta 1994. ean Kursaal orubearen mural txapelketa irabazi zuen.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Casaresek eta Historia Mintegiak 10 urte.

1996a ospakizun urtea izango da Altzako kultur elkarte eta taldeentzat. Altzako Historia Mintegiak 1986. urtetik darama lanean inguruko biztanleoi bertako ohitura zahar eta historien berri ematen. Hori dela eta, hilabete honetan bertan hirugarren liburu historikoa kaleratuko dute. Casares Kultur Etxea ere 1986. urtean bere zeregina auzoan bideratzen eta orduz geroztik kultura inguruko ekintza guztien topaleku izan da. Altza inguruan eta kultura mailan lanean diharduten elkarteek omenaldi berezia prestatu diote kultur etxe honi.

herrera

«Mozkor Frentekideok» lagun taldeak, kultura munduan murgildu nahiean, ideia berri batekin eman nahi izan dio urteari hasiera, izan ere, otxote bat osatu nahiean, lanean hasi baitira. «Zorrote»k zuzenduriko otxote honek gizonezko ahotsak bildu ditu eta oraindik abestiak egokitzen ari dira. Otxoteak lana emango dien arren, taldeak ez du ahaztuko urtero antolatzen duen pilota txapelketa eta ez dio inola ere bertan parte hartzeari utziko.

Agerre antzerki taldea Maite Agirrek zuzendu eta antzezten duen azken lana ari da Bidebietako Contadoresen taularatzen aste osoan zehar. Arantxa Urretabizkaiak idatziriko «Zergatik Panpox?» Angel Collado, Jonan Goenaga, Koldobika Jauregi eta Azucena Vieitesek egindako lanari esker taularatu ahal izan da.

«Zergatik Panpox?» Donostiako Santo Tomaseko antzerkialdian antzeztu zen lehen aldiz euskaraz, baina oraingoan lan honen erdarazko bertsioa izango dugu ikusgai. Contadoresen ikusiko dugun lan hau, datorren ostegunean eta hilaren 11an Madrileko bidea hartuko du bertan otsailera arte egongo delarik.

Auto Eskola
INTXAURRONDO S.L.
26 urte bitarteko gazteek
%30eko beherapena daukate matrikulan
Gaztelu kalea 21 • Tfnoa.: 290847 • DONOSTIA